

herrera

Irteerak, zinema eta kirola gazteentzat


gazte Uda 96 izenburupean, irteerak, gazte-zinema eta akuatik delakoa dira antolatutako ekintza nagusiak. Ekainaren 24etik 28ra kirola egiteko asmoz Landetara 5 eguneko bidaia antolatu dute. Abuzturako berriz, Araba aukeratu dute 10 egunetarako egonaldia prestatuz, besteak beste, bainuak, jolasak, Lenitz Gatzaga ezagutzeko irteera, mendi irteerak eta abar antolatu dituzte 10.000 pezetaren truke. Izen emateak uztailaren 24era arte egin daitezke.

Gatezinema tartearen barruan beldurrezko filmeak izango dira protagonista udan. Uztailean hainbat beldurrezko pelikula eskainiko dituzte eta beldur gaua antolatuko dute. Akuatik-en piraguan ibiltzen ikastea, txalupa irteerak eta arrantza izango dira ekintza nagusiak

Heziketa eta aisia

Gazte-Txokoa osasun heziketa eta aisian lan egiten duen elkarte da. 14 urtetik 17ra arteko gazteei zuzendua dago eta bertan parte hartzeko gazte txokoa-ren lokaletara hurbildu besterik ez dago.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Udaberrian ere hainbat gauza antolatu ditu Bidebietako Gazte Txokoak. Oartzunen zaldi gainean ibiltzen izan zirenekoa dugu argazkia.

intxaurrondo

Ikastola zaharrari agur

Ikastola guztien ohitura izaten da ikasturte amaieran jaialdia ospatzea. Intxaurrondo ikastolak ere prestatu du bere jaialdi eguna gaur ostiralerako, baina aurten esanahi berezia izango du ikastola zaharrean egiten den azkena izango baita. Datorren ikasturtea Zarategi pasealekuan eraikitzen ari diren egoitza berrian hasiko da. Hamabost urte baino

gehiago iraun dute Urdintxo eta Letamaneko egoitzak, adin guztietako haurrez inguratuta. Baina ikastola berriarekin, etapa berri bati emango zaio hasiera eta baita hobekuntza ugariri ere.

Egun osorako antolatu dituzte ekintzak. Goizez, Sebastopoleko Titiriteroak arituko dira Justo Elizaran pasealekuan. Arratsaldez, lehenik ikastolako hurrek

prestaturiko saioak izango dira ikusgai; kantu, antzerki, bertso, etab. 16.00etatik aurrera, helduentzako jolasak prestatu dituzte gurasoek eta ondoren, askaria izango da guztientzat trikitixaz lagundurik. Ekintza guztiek Urdintxo egoitzan egingo dira eta euria izanez gero, parkeko frontoi estalian.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación